

‘BILBAO FASHION WEEK 2025’ MODAREN ASTEA HASI DA, DISEINATZAILE GAZTEEN ETA DISEINU EMERGENTEAREN ALDEKO APUSTU ARGIAREKIN

- Kontxi Claverrek, Bilboko Udaleko Ekonomiaren Garapeneko, Merkataritzako, Turismoko eta Enpleguko zinegotziak, azaroaren 23ra arte diseinu bereziekin apaindutako erakusleihoak ikusgai izango dituzten bederatzi saltokiak bisitatu ditu, hain zuzen ere Asier Quintana, Igone Cabrerizo, Kim Yeonghyeon eta Marta Reparaz diseinatzaile gazteek sortutakoak.
- ‘Bilbo soinean’ desfilea bihar bertan, azaroaren 15ean, egingo da 12:00etan, Funikularreko plazan eta Artxandan; halaber, edizio honetako bete-beteko programazioaren baitan beste zenbait jarduera izango dira, hala nola bizimodu osasungarria izateko ohituren, ile-apainketaren eta koktelgintzaren inguruko *master class* bat eta modari eta zinemari buruzko hitzaldi bat.
- ‘Bilbao Fashion Week’ asteak bide berri bati ekin dio aurten Bilboko Udalaren proiektu estrategiko gisa; edizio honetan, BilbaoCentroren eskutik, modaren aldeko apustua egingo da, hiriaren motor ekonomiko, kultural eta sortzailea izan dadin.

(Bilbon, 2025eko azaroaren 14an).- **Bilbao Fashion Week 2025** astea dagoeneko hasi da, eta hiriko hainbat espaziotan egingo diren jardueraz betetako programazioa eskainiko du. Horiek horrela, Kontxi Claverrek, Bilboko Udaleko Ekonomiaren Garapeneko, Merkataritzako, Turismoko eta Enpleguko zinegotziak, azaroaren 23ra arte diseinu bereziekin apaindutako erakusleihoak ikusgai izango dituzten bederatzi saltokiak bisitatu ditu gaur goizean, hain zuzen ere Asier Quintana, Igone Cabrerizo, Kim Yeonghyeon eta Marta Reparaz diseinatzaile gazteek sortutako identitate propiodun bildumen parte direnak.

Veritas, Dock Bilbao, Mosel, Perfumería Erlai, Los encajeros, Amma, Gerardo, Ruiz de Ocenda eta Mercedes de Miguel saltokiek hamar egunez erakusleihoetan ikusgai izango dituzte lau diseinatzaile gazteen sorkuntzak, BIAAFek (Bilbao International Art & Fashion) hautatutakoak. *“Bilbao Fashion Week astearen baitan egingo den erakusketa honek tokiko markak eta diseinatzaile gazteak ezagutaraztea du helburu, hirian sormen-sinergiak sortzeko eta modaren diseinua Bilboren aldaketa-motor gisa kokatzeko”, esan du Kontxi Claverrek, BilbaoCentroren eta BIAAFen ordezkariekin batera ibilbidea egin duenak.*

Asier Quintanak, Marta Reparazek, Igone Cabrerizok eta Kim Yeonghyeonek **BIAAF Lab** ekimenaren esparruan sortutako bildumen parte diren berokiak, kamisetak, alkandorak, prakak, bitxiak eta poltsak Bilboko bederatzi saltoki horien erakusleihoetan ikusgai egongo dira, herritarren gozamenerako, **diseinuaren eta modaren ekosistema Bilbo**

hiriko merkataritzari zabaltzeko asmoz. Ekimen honetan hiriko diseinatzaile prestigiotsuek ere parte hartu eta lagundu dute, baita hiriko enpresa eta saltoki ugari ere.

Azaroaren 13tik 23ra bitarteko programazioak askotariko jarduerak biltzen ditu, hala nola **desfileak, workshopak, talk showak, tailerrak, erakusketak eta hiri-ekintzak, ekimen osagarriekin eta laguntza espezializatuagoarekin**. Joan nahi duten pertsonak aldeztatik aurretik **erregistratu gabe eta gonbidapenik gabe joan ahal izango dira, edukiera bete arte, pasarelaren kasuan izan ezik**, horretarako BilbaoCentro-ren bidez izena eman eta gonbidapena jaso beharko baitute.

Gaur, azaroak 14, **arratsaldeko 14:00etatik aurrera “Diseinutik harago”** Talk Showa egingo da Indautxu plazako **Pangea**, espazioan: **Javier Barroetak, Eder Aurrek eta Patirke Moránek** modaren munduan elementu eraldatzaile gisa izandako esperientzia partekatuko dute.

Bihar, larunbata, **azaroaren 15ean, eguerdiko 12:00etan, “Bilbo soinean”** hiriko desfilea egingo da Funikularreko plazan eta Artxanda inguruetan, eta tokiko zenbait saltokik parte hartuko dute: **Anna Montes, Juan Bilbao, Jajoan, Galeria 8360, Garzon, Falstaff, Barbour, El armario de Tater, 017 Store, Dock, New Lemon, Charlotte y Masquegorros, La tienda de Olga eta Javier Barroeta**.

Azaroaren 19an, 14:00etan, Zubiarte merkataritza-gunean **Master Class** bat eskainiko da bizimodu osasungarria izateko ohiturei, kirolari, ile-apainketari eta koktelgintzari buruz, **Pilar Arranz (Peluquerías Marcel Arranz), Yolanda Aberasturi, Felipe Garate (Café Bar Las Torres)** eta kirol eta nutrizioan aditua den **Roberto Gómez** izango dira bertan.

Azaroaren 20an, 14:00etan, “Moda eta Zinema” hitzaldia eskainiko da Plaza Biribileko Turismo Bulegoan, jantzien diseinatzailea den **Nerea Torrijosekin**, 2021ean jantzien diseinu onenaren Goya saria irabazi zuena.

Datorren larunbatean, **azaroaren 22an, Bilboko Euskalduna Jauregian**, arratsaldeko 20:00etan, **Bilboko Modaren Pasarela** egingo da, zeinak berrikuntza gisa hiriko kalitatezko saltokientzako **erakusketa-espazio** bat izango baitu, eta 19:00etatik aurrera zabalduko dizkie ateak bisitariei. Ekitaldi horretan **“Bilbo Modaren Hiribildua” VI. Saria** emango zaio Alberto Etxebarrieta moda diseinatzaile bilbotarrari, *Sinpatrón* ekimenaren sortzaileari.

‘Bilbao Fashion Week’ hirian **ibilbide luzea duen proiektua** da eta **edizio honetan**, Bilboko Udalak, **BilbaoCentroren eskutik**, Bilbo Erdialdeko eta Alde Zaharreko merkatarien elkarteek esperientzia eta sinergiak baliatuz, etorkizunari begiratu eta bide berri bati ekingo dio hiriko merkatarien elkarteek ehunaren eskutik.

SARE SOZIALAK:

- **BILBOKO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO EKINTZA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBO TURISMOA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

COMIENZA LA SEMANA DE LA MODA 'BILBAO FASHION WEEK 2025' CON UNA CLARA APUESTA POR JÓVENES DISEÑADORES Y EL DISEÑO EMERGENTE

- Kontxi Claver, Concejala de Desarrollo Económico, Comercio, Empleo y Turismo del Ayuntamiento de Bilbao, ha recorrido los nueve comercios que hasta el 23 de noviembre tendrán expuestos en sus escaparates diseños especiales creados por los jóvenes diseñadores Asier Quintana, Igone Cabrerizo, Kim Yeonghyeon y Marta Reparaz.
- El desfile 'Vísteme de Bilbao' mañana 15 de noviembre a las 12:00 en la Plaza del Funicular y en Artxanda, una *master class* sobre hábitos de vida sana, peluquería y coctelería, así como una charla sobre moda y cine son algunas de las actividades de la completa programación de esta edición.
- 'Bilbao Fashion Week' inicia este año una nueva andadura como proyecto estratégico del Ayuntamiento de Bilbao, en esta edición de la mano de BilbaoCentro, apostando por la moda como motor económico, cultural y creativo de la ciudad.

(Bilbao, 14 de noviembre de 2025).- La Semana de la Moda 'Bilbao Fashion Week 2025' ya ha comenzado con una completa programación llena de actividades en diversos espacios de la Villa. Con ese motivo, **Kontxi Claver, Concejala de Desarrollo Económico, Comercio, Empleo y Turismo del Ayuntamiento de Bilbao**, ha recorrido esta mañana los **nueve comercios** que hasta el próximo 23 de noviembre tendrán **expuestos en sus escaparates diseños especiales** pertenecientes a colecciones con identidad propia creadas por los jóvenes diseñadores Asier Quintana, Igone Cabrerizo, Kim Yeonghyeon y Marta Reparaz.

Veritas, Dock Bilbao, Mosel, Perfumería Erlai, Los encajeros, Amma, Gerardo, Ruiz de Ocenda y Mercedes de Miguel son los comercios que acogen en sus escaparates durante diez días creaciones de los mencionados cuatro jóvenes diseñadores, seleccionados por BIAAF (Bilbao International Art & Fashion). *"Esta exposición en el marco de la Bilbao Fashion Week pretende ser una lanzadera de marcas locales y jóvenes diseñadores, generando sinergias creativas en la ciudad y situando el diseño de moda como motor de cambio de Bilbao"*, ha dicho Kontxi Claver, que ha estado acompañada por representantes de BilbaoCentro y BIAFF durante el recorrido realizado.

Se trata de abrigos, camisetas, camisas, pantalones, joyas, bolsos... que forman parte de colecciones creadas por Asier Quintana, Marta Reparaz, Igone Cabrerizo y Kim Yeonghyeon en el marco de **BIAAF Lab** y que estarán expuestos, para el disfrute de la ciudadanía, en los escaparates de los nueve comercios bilbaínos, con el objetivo de **abrir el ecosistema del diseño y la moda al comercio urbano de Bilbao**. Una iniciativa en la

que también han participado y colaborado prestigiosos diseñadores de la ciudad, además de empresas y comercios de la Villa.

La programación entre el 13 y el 23 de noviembre incluye una amplia variedad de actividades como **desfiles, workshops, talk shows, talleres, exposiciones y acciones urbanas, con iniciativas complementarias y un mayor apoyo especializado**. Las personas interesadas en asistir a todas las actividades podrán acudir a las mismas **sin previo registro ni invitación, hasta completar aforo, a excepción de la pasarela**, para la cual hará falta invitación e inscripción a través de BilbaoCentro.

Hoy 14 de noviembre **a partir de las 14:00 horas** tiene lugar el *Talk Show* “**Más allá del diseño**” en el espacio **Pangea**, en la Plaza Indautxu, donde **Javier Barroeta, Eder Aurre y Patirke Morán** compartirán su experiencia en el mundo de la moda como elemento transformador.

Mañana sábado **15 de noviembre a las 12:00 horas** se celebrará el **desfile urbano “Vísteme de Bilbao”** en la Plaza del Funicular y el entorno de Artxanda, con la participación de comercios locales como **Anna Montes, Juan Bilbao, Jajoan, Galería 8360, Garzon, Falstaff, Barbour, El armario de Tater, 017 Store, Dock, New Lemon, Charlotte y Masquegorros, La tienda de Olga y Javier Barroeta**.

El **19 de noviembre a las 14:00 horas**, el centro comercial **Zubiarte** acogerá una **Master Class** sobre hábitos de vida sana, deporte, peluquería y coctelería, con **Pilar Arranz (Peluquerías Marcel Arranz), Yolanda Aberasturi, Felipe Garate (Café Bar Las Torres)** y el experto en deporte y nutrición **Roberto Gómez**.

El **20 de noviembre a las 14:00 horas**, la Oficina de Turismo de la Plaza Circular será el escenario de la charla “**Moda y Cine**”, con la diseñadora de vestuario **Nerea Torrijos**, ganadora del Premio Goya al Mejor Diseño de Vestuario en 2021.

El próximo sábado **22 de noviembre**, el **Palacio Euskalduna Bilbao** acogerá a las 20:00 horas la **Pasarela de la Moda de Bilbao**, que incorpora como novedad un **espacio expositivo** para comercios de calidad de la ciudad, que estará abierto para su visita a partir de las 19:00 horas. Durante el evento, se entregará el **VI Premio “Villa de Bilbao de la Moda”** al diseñador bilbaíno Alberto Etxebarrieta, fundador de *Sinpatron*.

‘**Bilbao Fashion Week**’ es un **proyecto con trayectoria** en la ciudad. El Ayuntamiento de Bilbao, **en esta edición de la mano de BilbaoCentro**, mira al futuro tomando el testigo y valiéndose de la experiencia y sinergias de las asociaciones de comerciantes de Bilbao Centro y del Casco Viejo, emprende un nuevo camino, también de la mano del tejido asociativo de comerciantes de la ciudad.

REDES SOCIALES:

- BILBAO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO EKINTZA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO TURISMO: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)